

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Kultura eta/edo gizarte elkarteei, kirol elkarteei, guraso elkarteei eta baserriak eta etxebizitzak berreskuratzeko laguntzei zuzendutako dirulaguntzen deialdia 2023

Udal osoko bilkurak 2023ko maiatzaren 11an egindako ohiko saioan honako hau erabaki zuen:

– Kultura eta/edo gizarte elkarreentzako, kirol elkarreentzako eta guraso elkarreentzako dirulaguntzen deialdia onartzea, bai eta baserriak eta etxebizitzak berreskuratzeko dirulaguntzen 2023ko deialdia ere.

– Erabaki honen bidez araututako diru-laguntzak 2023ko gastuen aurrekontuko partiden 326.481.000, 326.481.060, 334.481.000, 341.481.000 eta, 1522.780.000 kargura ordaintzea.

– Deialdi horiek ALHAOn eta argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegi egokian (txandaren arabera), eta horretarako bi hileko epealdia egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio argitaratutako berariazko ebazpena eman duen organoari, eta horretarako hilabeteko epealdia egongo da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2023ko maiatzaren 18an

Alkate-udalburua

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

KULTURA ETA/EDO GIZARTE ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Deialdiaren xedea

Aurrekontuaren mugen barruan, Zuiako udalerrian kultur jarduerak, euskara sustatzeko jarduerak eta gizarte sustapeneko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak ematea eta, orobat, herritarrek udal eskumenekoen osagarri edo ordezkotza diren zerbitzuak eta jarduerak egiteko prestazioak eskuratzeko aukera berak edukitzea bermatzen duten helburuak zehaztea.

2. Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke sozietatearen egoitza Zuiako udalerrian daukaten kirolaren eta gizartearen arloetako elkarte eta talde publiko zein pribatu guztiak, baldin eta ez badaukate irabazteko asmorik eta legez ezarritakoaren arabera eratuta eta erregistratuta badaude.

3. Diru-laguntza jaso dezaketen programak

Diru-laguntza hauek Zuiako udalerrian kirolaren, aisialdiaren, euskararen eta emakume eta gizonen arteko berdintasun arloetan antolatzen diren jardueretarako emango dira batik bat; lehentasuna edukiko dute programa hauek:

- Zuiako udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenek.
- Euskararen erabilera sustatzen eta bultzatzen dutenek.
- Herritarrek parte hartzea bultzatzen dutenek.
- Udalerria sustatzen dutenek.
- Kultura eta euskara zabaltzeko eta sustatzeko jarduerak dituztenek.
- Kultura lantzea errazten duten jarduerak antolatzen dituztenek.
- Emakumeen ikusgarritasuna eta parte-hartzea sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko programak eta/edo ekintzak egitea.
- Gizarteratze arriskuan dauden edo kolektibo behartsuen parte-hartzea bermatzen edo/eta sustatzen dituzten programak.
- Herriko tradizioak berreskuratzea bultzatzen dutenek.
- Gazteek aisialdian izan ditzaketen arriskuak prebenitzera zuzendutako jarduera programek, jolas eta aisialdi jarduerak, bizi kalitatea hobetzeko jarduerak, ezinduei zuzendutako jarduerak, gizarteaz gazteen papera sustatzeko eta bultzatzeko jarduerak.

4. Aurrekontuko kreditua

Gastu hauek Zuiako Udalaren 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 334.481.000 partidaren kargura egingo dira. Partidaren zenbatekoa 29.000,00 euro da.

5. Diru-laguntzen zenbatekoa

Udalak gehienez ere diru-laguntza jasotzen duen programa baten kostuaren aurrekontuaren ehuneko 50 ordaindu ahal izango du.

Hala ere, udalak izapidetza berezia eman ahal izango die udalerrientzat interes berezikoak diren programa batzuei eta programa horietarako eragiten duten kostuaren ehuneko 100eko diru-laguntza eman ahal izango du.

Diru-laguntza hauekin batera helburu bererako beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandakoak jaso daitezke, baina ezin da gain finantzaketarik gertatu, hau da, guztira jasotzen den diru kopurua, erakunde guztien diru-laguntzak bat eginda, ezin da izan jardueraren guztirako kostua baino gehiago. Hainbat diru-laguntza jaso eta ondorioz gain finantzaketa gertatzen bada, onuradunak Zuiako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, hain zuzen ere finantzatutako guztirako zenbatekoaren eta Udalak emandakoaren arteko proportziozko zenbatekoa.

Diru-laguntzen guztirako zenbatekoa inolaz ere ezin da izan Zuiako Udalak aurrekontu orokorrean xede horietarako partidetan ezarritako kopurua baino gehiago.

Zenbatekoa aurkeztutako eskaeren eta aurrekontu partidaren zuzkiduraren arabera aztertuko da.

Diru-laguntza ezinbestekoa bada jarduera finantzatzeko, aldeaz aurretik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

6. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak eta horiekin batera zazpigarren oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, ALHAOn Deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita; interesatuek, 2022/2023 ikasturtean (Elkarterik gehienak) edo urte naturalean (Bidabarri Euskal Kultur Elkarte eta Gorbeiaiko Bazterra Mikologia Elkarte) egin beharreko ekintzen programa/proiektua aurkeztuko dute.

Izaera puntuala edo apartekoa duten jarduera edo programetarako eskaerak hasi baino hilabete lehenago aurkeztu behar dira. Nolanahi ere, eskaerak aribideko urteko azaroaren 19rako aurkeztu behar dira.

2. Eskabideen eta agirien aurkezpena, udalak emandako ereduaren arabera, udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

3. Udalak emandako eskabide ofiziala eta inprimakia (III. eta IV. eranskinak), bertan, proiektuak eta programak eta sinatutako diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak jasoko dira.

4. Diru-laguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea.

5. Ezin izango dituzte eskuratu diru-laguntza hauek Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko IV. tituluaren aipatzen diren arau hausteengatik zigorren bat ezarri zaienek.

7. Dokumentazioa

Eskatzailearen estatutuen fotokopia eta Elkarte eta Erakundearen Erregistroan legez eraturik eta erregistratuta dagoela frogatzen duten agiriak. Aurreko urteetan aurkeztu dituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, aldaketarik izan ez bada, eta toki erakunde txikiek ere ez.

Gizarte segurantzako eta ogasunaren diruzaintza nagusiko betebeharrak egunean dituenaren ziurtagiria, eskabide-ereduaren arabera.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela pentsatuko dela, beste izapiderik gabe.

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

8. Diru-laguntzak emateko irizpideak

8.1. Eskaeran eta I. inprimakian adierazitako datuak baloratuko dira laguntzen zenbatekoa finkatzeko.

8.2. Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak gorabehera, ondoko hauek dira:

8.2.1. Euskararen eta/edo emakume eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenaren arloko eta gizarte sustapenaren arloko programa eta proiektuetarako irizpideak:

— Programan parte har dezakeen pertsonen kopurua (aurreikuspena). Sexuaren arabera bereizirik.

— Jarduerak zenbat egun iraungo duen edo zenbat jardunaldi (ikastaroak, lehiaketak, hitzaldiak, ekitaldiak eta abar) egin diren udalerrian.

- Autofinantzaketa. Proiektua aurreikusitako finantzaketaren arabera garatu ahal izatea.
- Gastu konputagarrien aurrekontua. Proiektu bakoitzaren premia baloratuko da, jarduera garatzeko. Gastu konputagarriak izango dira (puntuak kalkulatzeko baino ez) ondoren adierazten diren kontzeptuengatik eta gehieneko ehunekoengatik diruz lagundutako jarduerari egotzi dakizkiekeenak:
 - Monitorea-hizlariak-gidariak-epaileak: ehuneko 100.
 - Jarduera egiteko guztiz beharrezkoak diren materialak/guneak alokatzea eta onik zaintzea: ehuneko 100.
 - Antzerki emankizunak/erakusketak, bertso jaialdiak, kirolarekin lotutakoak, ipuin kontalariak, dantza, musika, eta abar: ehuneko 100.
 - Argitalpenak (herritarrentzako interes orokorrekoak): ehuneko 100.
 - Berariazko aseguruak jarduerarako: ehuneko 100.
 - Museoetara, parke naturaletara, interpretazio zentroetara sartzeko txartelak, kultura ikustaldiak eta antzekoak: ehuneko 100.
 - Material suntsigarria (jarduera garatzeko oinarrizko materiala): ehuneko 75.
 - Dietak, garaikurrak eta sariak, erakundeak mantentzeko eta lanean aritzeko dituen gastu orokorrak, autobusak, garraioaren alokairua: ehuneko 50.
 - Lunchak, kartelak, programak, publizitatea: ehuneko 25.

Euskara: euskararen sustapena.

9. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari dirulaguntza eman edo ez ebatziko da.

9.1. Espedientea bideratzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa.

Espedientea bideratzeko organo eskuduna Kultura arloko arduraduna izango da.

Ebazteko eskumena, aldiz, alkatetzak dauka.

9.2. Aztertzea eta ebaztea.

Teknikariek eskaerak aztertu eta instruktoeari lagunduko diote. Instrukziogileak jarduera hauek egin behar ditu:

Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu, besteak beste arloko teknikariari eta idazkari kontu-hartzaileari.

Eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren espedientea oinarri arautzaileetan azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 22.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik ezarritako kide anitzeko organoari bidaliko zaio eta honek eskaeren gaineko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren organo instruktoeak behin-behineko ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta. Gero proposamena interesdunei jakinaraziko zaie eta haiek hamar eguneko epealdia edukiko dute alegazioak aurkezteko.

Entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango baldin eta prozeduran interesdunek aurkeztutako gertaerak eta alegazioak baino ez badira agertzen eta kontuan hartzen. Hala denean, ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Ebazpen proposamenean ondoko datuak zehaztu behar dira gutxienez: diru-laguntza eskatzen den proiektua, diru-laguntzaren zenbatekoa, lortutako puntuak eta gastuak frogatzeko epealdia.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez.

Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Halaber, ebazpenean ondokoen berri emango zaie interesdunei: zer errekurtsio aurkezten ditzaketen ebazpenaren aurka, zer organo judizial aurkeztu behar dizkieten eta zenbateko epealdia daukaten horretarako. Errekurtsioak aurkeztea gorabehera interesdunek nahi dituzten esku-bide guztiak erabil ditzakete.

Eskaerak ebazteko epealdia hiru hilekoa izango da aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsitatzeko beharko dira.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, beraz, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 9.c) artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke administrazio auzietarako epai-tegian. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epean errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

10. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza honela ordaindu ahal izango da:

1. Urteko programetan, alde zuzenetik ordaindu ahal izango da diru-laguntzaren ehuneko 75, gehienez.
2. Ezohiko programetan eta jardueren zehazketan, diru-laguntza ordaintzeko ezinbestekoa da jardueran egin dela frogatzea eta beraren memoria aurkeztea jardueran amaitu ondoren eta diru-laguntza eman duen ebazpenean ezarritako epealdian.
3. Diru-laguntza ezinbestekoa bada jardueran finantzatzeko, haren zati bat alde zuzenetik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

11. Diru-laguntza justifikatzeko epealdia

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakundeek hurrengo oinarrian adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte Zuiako Udalaren bulegoetan diru-laguntza emateko ebazpenean ezartzen den epealdian baino lehen, eta ezinbestean epemuga hauekin:

Aurtengo urriaren azken egun balioduna, Bidabarri Euskal Kultur Elkarte eta Gorbeia Mikologia Elkarte izan ezik, aurtengo azaroaren azken egun balioduna baitaie horiei justifikazioa aurkezteko epea.

12. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak

- 1) Diru-laguntzaren proiektu edo programa bakoitzaren memoria likidazioa (udalak emandako ereduaren arabera); datu hauek adierazi behar dira:
 - Egindako jarduerak.
 - Aldiak: egunak eta orduak.
 - Partehartzaileak. Sexuaren arabera bereizirik.
 - Helburuak eta balorazioa.

– Jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztien balantzea, sinatuta. Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...).

2) Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: fakturak eta bestelako gastu frogagiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak), guztira jasotako diru-laguntzaren zati proportzionalari dagokion zenbatekoa jotzen dutenak, gutxienez.

Gastuak frogatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi ezarrita ez dituzten ordainagiriak, fakturak, tiketak eta gainerakoak:

- Emailea: izena eta NAN edo sozietatearen izena eta IFZ.
- Hartzaillea: egoitza eta IFZ (diru-laguntza jaso duen erakundea izan behar da).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- BEZ: aplikatutako zerga tasa(k).

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

3) Zinpeko aitortpena: xede bererako edozein administrazio edo erakunde zein organismo publikorengandik diru-laguntzak edo laguntzak jasoko ditu, eskabide-orrian sartuta. Beste diru-laguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administrazio eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

4) Diruz lagundutako jarduerari buruzko programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.

13. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Diru-laguntza galtzea

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu behar du aurkeztutako proiektua. Gainera, deialdi honetan ezarritako xedapenak bete behar ditu, bai eta diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzan agindutakoa ere.

Hain zuzen ere, erakunde eskatzaileari haxe gogorarazten zaie: derrigorrezkoa da Zuiako Udalaren babes aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan, karteletan, idatzietan edo dokumentuetan. Gainera, elementu horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan editatu behar dira.

Ondoko kasuetan erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea abiatu ondoren:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Ezarritako epealdian agiriren bat aurkezten ez bada, berariaz eskatu arren.
- Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrretako bat betetzen ez bada.
- Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira Zuiako Udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du udalaren inolako diru-laguntzarik jaso; udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

14. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, horren inguruko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

15. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Laguntza hauekin batera beste laguntza edo diru-laguntza batzuk ere eskura daitezke.

Udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein diru-laguntzekin bat eginda, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

16. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.

17. Arau hausteak eta zehapenak

Diru-laguntzak direla eta, administrazio arau hauste izango dira diru-laguntzak eta Laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorreko IV. kapituluaren jasotako egite edo ez-egiteak.

18. Legeria gehigarria

Oinarri hauetan xedatu ez denerako Zuiako Udalak diru-laguntzak eta laguntzak arautzeko emandako ordenantza orokorrean eta lege orokorrean eta araudi orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan.

19. Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntzei buruzko ebazpenean elkarre bakoitzaren puntuak zehaztuko dira eta puntu bakoitzaren balioa zenbatetsiko da. Puntu bakoitzaren benetako balioa onuradunak gastuak frogatzen dituenean ezarriko da.

Puntu guztien baturari dagokion zenbatekoaren ehuneko 75 aurreratu ahal izango da, puntuaren balio zenbatetsia aplikatuta.

2023an Zuiako udalerrian egingo diren kultur programak, euskara sustatzeko programak eta gizarte programak: puntuazio baremoak.

PARTEHARTZAILEEN KOPURUA/ ONARPENA	PUNTUAK
1-10 bitartean	3
11-20 bitartean	10
21-50 bitartean	20
51-80 bitartean	40
81-100 bitartean	55
101 baino gehiago	80

EGUN/JARDUNALDIEN KOPURUA	PUNTUAK
Egun bat	1
2-7 bitartean	5
8-15 bitartean	10
16-30 bitartean	15
31-60 bitartean	25
61 baino gehiago	50

AUTOFINANZAKETA (UDAL DIRU- LAGUNTZA ZENBATU GABE)	PUNTUAK
10.000 euro baino gehiago	90
6.000-9.999 euro bitartean	60
5.999-4.500 euro bitartean	45
4.499-3.000 euro bitartean	30
2.999-2.000 euro bitartean	20
1.999-500 euro bitartean	10

AUTOFINANTZAKETA (UDAL DIRU-LAGUNTZA ZENBATU GABE)	PUNTUAK
499 euro baino gutxiago	5

DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUEN AURREKONTUA	PUNTUAK
1-499 euro bitartean	3
500-2.499 euro bitartean	10
2.500-3.999 euro bitartean	15
4.000-5.499 euro bitartean	30
5.500-6.999 euro bitartean	40
7.000-8.499 euro bitartean	50
8.500-9.999 euro bitartean	65
10.000 euro baino gehiago	80

EUSKARA	PUNTUAK
Euskara erabiltzeko edota sustatzeko jarduerak	40

EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA	PUNTUAK
Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera bideratutako ekintzak (Hala nola, emakumeen jabekuntza sustatzea bideratutako hitzaldiak edo tailerrak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dituzten espazioen bisitak, edo emakumeen ekarpen soziala agerian jartzen dituztenak, erantzunkidetasuna eta kontziliazioa sustatzen dituzten ekintzak etab)	40

ENTITATEAN DAUDEN EMAKUME ETA/EDO NESKEN KOPURUA, ESKAERA URTEAREN URTARRILAREN 1KO DATAN	PUNTUAK
Entitatea osatzen duten pertsonen ehuneko 40a edo gehiago emakumeak eta/edo neskatilak dira	20
Udalak deitutako bileretan parte-hartzea edo horietara bertaratzea	10

KIROL ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Deialdiaren xedea

Aurrekontuaren mugen barruan, Zuiako udalerrian kirol jarduerak antolatzeko diru-laguntzak ematea eta, orobat, herritarrek udal eskumeneko osagarri edo ordezkodiren zerbitzuak eta jarduerak egiteko prestazioak eskuratzeko aukera berak edukitzea bermatzen duten helburuak zehaztea.

2. Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke sozietatearen egoitza Zuiako udalerrian daukaten kirolaren eta gizartearen arloetako elkarte eta talde publiko zein pribatu guztiak, baldin eta ez badaukate irabazteko asmorik, lege ezarritakoaren arabera eratuta eta erregistratuta badaude eta bazkideen ehuneko 50 gutxienez bertan erroldatuta badaude.

Ezin dira aurkeztu diru-laguntza deialdi honetara Zuiako udalarekin diru-laguntza zuzenean bideratzeko hitzarmena sinatuta duten elkarteak eta pertsonak, ez eta Zuiako ikastetxe publikoetako guraso elkarteak ere, ikastetxe horietako kirol jarduerak udalaren hezkuntza eskumenen esparruan sartzen dira eta.

3. Diru-laguntza jaso dezaketen programak

Diru-laguntza hauek Zuiako udalerrian kirolaren arloan antolatzen diren jardueretarako emango dira; lehentasuna edukiko dute programa hauek:

- Zuiako udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenek.
- Euskararen erabilera sustatzen eta bultzatzen dutenek.

- Herritarrek parte hartzea bultzatzen dutenek.
- Udalerria sustatzen dutenek.
- Kirola, oro har, eta batez ere Euskal Herriko kirolak ezagutarazten eta sustatzen dituztenek.
- Kirolean aritzea errazten duten jarduerak antolatzen dituztenek.
- Emakumeen ikusgarritasuna eta parte-hartzea sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko programak eta/edo ekintzak egitea.
- Emakume eta neskatilen parte-hartze zehatza sustatuz.
- Herriko tradizioak berreskuratzea bultzatzen dutenek.
- Gizarte-egoera ahulean dauden edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden kolektiboen parte-hartzea eta gizareratzea babestea eta bermatzea.

4. Aurrekontuko kreditua

Gastu hauek Zuiako Udalaren 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 341481000 partidaren kargura egingo dira. Partidaren zenbatekoa 26.00,00 euro da.

5. Diru-laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzak banatzeko sistemak bi atal dauzka: zenbateko bat emango da fitxen arabera kopurua bat puntuazioaren arabera. Lehenbizi fitxen gastu finkoa kalkulatu da, kopuru hori aurrekontuko partidatik kenduko da eta geratzen dena kirol elkarte eta taldeen artean banatuko da bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera.

Diru-laguntza hauekin batera helburu bererako beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandakoak jaso daitezke, baina ezin da gain finantzaketarik gertatu, hau da, guztira jasotzen den diru kopurua, erakunde guztien diru-laguntzak bat eginda, ezin da izan jardueraren guztirako kostua baino gehiago. Hainbat diru-laguntza jaso eta ondorioz gain finantzaketa gertatzen bada, onuradunak Zuiako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, hain zuzen ere finantzatutako guztirako zenbatekoaren eta udalak emandakoaren arteko proportziozko zenbatekoa.

Diru-laguntzen guztirako zenbatekoa inolaz ere ezin da izan Zuiako Udalak aurrekontu orokorrean horretarako partidaren ezarritako kopurua baino gehiago.

Diru-laguntza ezinbestekoa bada jarduera finantzatzeko, haren zati bat aldeztu aurretik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

Udalak gehienez ere programa osoaren kostuaren aurrekontuaren ehuneko 50 ordaindu ahal izango du.

6. Eskaerak aurkeztea

1. 2022/2023 denboraldiko programa edo proiektuetarako eskaerak eta horiekin batera zazpigarren oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, ALHAOn deialdia agitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

2. Eskabideen eta agirien aurkezpena udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

3. Diru-laguntza hauen eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

4. Ezin izango dituzte eskuratu diru-laguntza hauek diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zigorren bat ezarri zaienek.

7. Dokumentazioa

Eskaera ofiziala eta sinatutako inprimakiak, (I. eta II. eranskinak), udalak emandako ereduaren arabera, non proiektuak edo programak diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenekin batera agertzen diren.

Eskatzailearen estatutuen fotokopia eta Elkarte eta Erakundearen Erregistroan legez eratu eta erregistratuta dagoela frogatzen duten agiriak. Aurreko urteetan aurkeztu dituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, aldaketarik izan ez bada, eta toki erakunde txikiek ere ez.

Gizarte segurantzako eta ogasunaren diruzaintza nagusiko betebeharrak egunean dituenaren ziurtagiria, udalari eskaerak egiteko edo baimentzeko ereduaren arabera.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela pentsatuko dela, beste izapiderik gabe.

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

8. Diru-laguntzak emateko irizpideak

8.1. Eskaeran eta inprimakian adierazitako datuak baloratuko dira laguntzen zenbatekoa finkatzeko.

8.2. Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak gorabehera, ondoko hauek dira:

8.2.1. Kirol programetarako diru-laguntzak.

KOPURU FINKOA: FEDERAZIOEN LIZENTZIAK	
Kirol federazioaren fitxa (901 euro baino gehiago)	30 euro fitxako
Kirol federazioaren fitxa (900 euro baino gutxiago) Lizentziaren diru-laguntzaren zenbatekori 10 euro gehituko zaizkio kirol federatuko 14 urtetik gorako emakume bati dagokionean	20 euro fitxako
Eskola umeen inskripzioa	10 euro kirolariko

ARBITRAJE GASTUAK	
0-300	5 puntu
301-600	10 puntu
601-900	15 puntu
901-1.200	20 puntu
1.201-1.500	25 puntu
1.501-1.800	30 puntu
1.801-2.100	35 puntu
>2.101	40 puntu

KIROL MATERIALA	
0-500	10 puntu
501-1.500	20 puntu
1.501-3.000	30 puntu
3.001-4.000	35 puntu
>4.001	40 puntu

ENTRENATZAILEEN GASTUAK (GEHIENEZ 200 EURO HILEAN ENTRENATZAILEKO)	
0-1.000	10 puntu
1.001-2.000	15 puntu
2.001-3.000	20 puntu
3.001-4.000	25 puntu
4.001-5.000	30 puntu
5.001-6.000	35 puntu
6.001-7.000	40 puntu
7.001-8.000	45 puntu
8.001-9.000	50 puntu
9.001-10.000	55 puntu
>10.001	60 puntu

FEDERAZIOEN GASTUAK	
0-300	3 puntu
301-500	5 puntu
501-1.500	10 puntu
1.501-3.000	20 puntu
3.001-5.000	35 puntu
>5.001	50 puntu

AUTOFINANTZAKETA (UDAL DIRU- LAGUNTZA ZENBATU GABE)	
0-500	5 puntu
501-1.500	10 puntu
1.501-3.000	15 puntu
3.001-5.000	20 puntu
5.001-8.000	30 puntu
8.001-10.000	40 puntu
10.001-15.000	50 puntu
>15.001	60 puntu

DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKEEN AURREKONTUA, GUZTIRA	
0-500	5 puntu
501-1.500	10 puntu
1.501-3.000	15 puntu
3.001-5.000	20 puntu
5.001-8.000	30 puntu
8.001-10.000	40 puntu
10.001-15.000	50 puntu
>15.001	60 puntu

NAHITAEZKO ASEGURUAK	
0-500	5 puntu
501-1.500	10 puntu
1.501-3.000	20 puntu
3.001-5.000	30 puntu
>5.001	40 puntu

ANBULANTZIAK/MEDIKUAK/BOTIKINA	
0-100	2 puntu
101-300	5 puntu
301-500	10 puntu
501-1.000	20 puntu
1.001-1.500	30 puntu
1.501-2.000	40 puntu
2.001-2.500	50 puntu
>2.501	55 puntu

MATERIALAREN ALOKAIRUA	
0-500	5 puntu
501-1.500	10 puntu
1.501-3.000	15 puntu
3.001-5.000	20 puntu
5.001-8.000	30 puntu
8.001-10.000	40 puntu

ENTRENATZAILEEN TITULUAK	
Titulurik ez	punturik ez
Zero gradua edo eskola kiroleko monitoreak	1 puntu
1. gradua	2 puntu
2. gradua	3 puntu
Goi mailako entrenatzailea	4 puntu

EMAKUME ENTRENATZAILEAK EGOTEA	
Emakumerik ez	0 puntu
Emakume 1	1 puntu
2 emakume	2 puntu
5 emakume baino gehiago	3 puntu

EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEA	
0 ekintza zehatz berdintasuna sustatzeko	0 puntu
Ekintza zehatz 1en garapena berdintasuna sustatzeko	1 puntu
Ekintza zehatz 2ren garapena berdintasuna sustatzeko	2 puntu
Ekintza zehatz 3ren garapena berdintasuna sustatzeko	3 puntu

Udalak deitutako bileretan parte-hartzea edo horietara bertaratzea	10 puntu
--	----------

EUSKARA ERABILTZEKO SOZIALIZAZIO-IKASTAROA	
Ume eta gazteen taldeetako entrenatzaileen euskararen sozializaziorako ikastaroa. Ikastaroa denboraldi hasieran egiten bada	200 euro

Ondoren azalduko diren kontzeptuek eragiten dituzten gastuak ezin dira zenbatu diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko puntuazioaren baremoaren eta gastuen justifikazioaren arabera otorduak, oro har, jantziak, txandalak, kirol jertseak, poloak, etab, joan-etorriak norbere ibilgai-luan, ostatua, bidaia turistikoa edo antzekoa denean, eta faktura bidez frogatu ezin diren gastu guztiak (ikusitako gastuak frogatzeko ereduak).

9. Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntzei buruzko ebazpenean elkarrekin bakoitzaren puntuak zehaztuko dira eta puntu bakoitzaren balioa zenbatetsiko da. Puntu bakoitzaren benetako balioa onuradunak gastuak frogatzen dituen ezaugarriak dira.

Puntu guztien baturari dagokion zenbatekoaren ehuneko 75 aurreratu ahal izango da, puntuaren balio zenbatetsia aplikatuta.

10. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari diru-laguntza eman edo ez ebatziko da.

10.1. Espedientea bideratzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa.

Espedientea bideratzeko eskumena kirolaren arloko buru den arduraduna izango da.

Ebazteko eskumena, aldiz, alkatetzak dauka.

10.2. Aztertzea eta ebaztea.

Teknikariek eskaerak aztertu eta instruktoreari lagunduko diote.

Instrukziogileak jarduera hauek egin behar ditu:

– Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu, besteak beste arloko teknikariari eta idazkari kontu-hartzaileari.

– Eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren espedientea oinarri arautzaileetan azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 22.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik ezarritako kide anitzeko organoari bidaliko zaio eta honek eskaeren gaineko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren organo instruktoreak behin-behineko ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta. Gero proposamena interesdunei jakinaraziko zaie eta haiek hamar eguneko epealdia edukiko dute alegazioak aurkezteko.

Entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango baldin eta prozeduran interesdunek aurkeztutako gertaerak eta alegazioak baino ez badira agertzen eta kontuan hartzen. Hala denean, ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Ebazpen proposamenean ondoko datuak zehaztu behar dira gutxienez: diru-laguntza eskatzen den proiektua, diru-laguntzaren zenbatekoa, lortutako puntuak eta gastuak frogatzeko epealdia.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez.

Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Halaber, ebazpenean ondokoen berri emango zaie interesdunei: zer errekurtsio aurkez ditzaketen ebazpenaren aurka, zer organo judiziala aurkeztu behar dizkioten eta zenbateko epealdia daukaten horretarako. Errekurtsioak aurkeztea gorabehera interesdunek nahi dituzten eskubide guztiak erabil ditzakete.

Eskaerak ebazteko epealdia hiru hilekoa izango da aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsitatzeko behar dira.

Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da jakinarazten denetik bi hilabete pasatu baino lehen administrazioarekiko auzietarako epaitegian.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epean errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

11. Diru-laguntza ordaintzea

11.1. Urteko programetan, aldez aurretik ordaindu ahal izango da diru-laguntzaren ehuneko 75, gehienez.

11.2. Ezohiko programetan eta jarduera zehatzetan, diru-laguntza ordaintzeko ezinbestekoa da jarduera egin dela frogatzea eta beraren memoria aurkeztea jarduera amaitu ondoren eta diru-laguntza eman duen ebazpenean ezarritako epealdian.

11.3. Diru-laguntza ezinbestekoa bada jarduera finantzatzeko, haren zati bat aldez aurretik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

12. Diru-laguntza justifikatzeko epealdia

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakundeek hurrengo oinarrian adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte diru-laguntza emateko ebazpenean ezartzen den eguna baino lehen, eta ezinbestean epealdi honen barruan:

2022/2023 denboraldiko kirol federatua eta eskola-kirola urriko azken egun baliodunean, eta Zuiako Txirrindulari Kluba 2023ko abenduaren 16a baino lehen, Ametzaga Zuia Ziklokros proba aipatutako Klubaren programatik kanpo antolatzen bada izan ezik; kasu horretan, azken eguna gainerako taldeei dagokiena izango da, hau da, urriko azken egun balioduna.

13. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak

– Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren memoria likidazioa (eredua udal bulegoetan eska daiteke); datu hauek adierazi behar dira:

Egindako jarduerak. Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako ekintzen sustapena.

Aldiak: egunak eta orduak.

Partehartzaileak. Sexuaren arabera bereiziak.

Jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztien balantzea, sinatuta.

Helburuak eta balorazioa.

Jarduerak sortutako sarreraren eta eragindako gastuen balantzea.

Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...).

– Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: fakturak eta hartu agiriak, bankuaren ordain-ketaren frogagiriarekin (fotokopia konpultsatuak), gutzira jasotako diru-laguntzaren zati proportzionalari dagokion zenbatekoa jotzen dutenak, gutxienez.

Gastuak frogatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi ezarrita ez dituzten ordainagiriak, fakturak eta gainerakoak:

Emalea: izena eta NAN edo sozietatearen izena eta IFZ. Hartzailea: egoitza eta IFZ (diru-laguntza jaso duen erakundea izan behar da).

Gastuaren xedea.

Data.

BEZ: aplikatutako zerga tasa(k).

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

– Zinpeko aitortpena: beste administrazio edo erakunde zein organismo publikoren batek xede bererako diru-laguntzarik edo laguntzarik eman dionez. Beste diru-laguntzaren bat lortuz

gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administraziok eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria eskabide-ereduaren arabera aurkeztu behar da.

– Diruz lagundutako jarduerari buruzko programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.

14. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Diru-laguntza galtzea

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu behar du aurkeztutako proiektua. Gainera, deialdi honetan ezarritako xedapenak bete behar ditu, bai eta diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzan agindutakoa ere.

Hain zuzen ere, erakunde eskatzaileari hauxe gogorarazten zaie: derrigorrezkoa da Zuiako Udalaren babesa aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan, karteletan, idatzietan edo dokumentuetan. Gainera, elementu horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan editatu behar dira. Gainera, hauek hizkuntza ez sexista erabili beharko dute, eta genero estereotiporik gabeko baliabideak, hala nola argazkiak. Azken bi baldintza horiek bete beharko dira, era berean, ahozko jarduna (esatariak, megafonia...) eskatzen duten jardueretan.

Ondoko kasuetan erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea abiatu ondoren:

Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.

Ezarritako epealdian agiriren bat aurkezten ez bada, berariaz eskatu arren.

Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrak ez bada.

Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira Zuiako Udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du Udalaren inolako diru-laguntzarik jaso; Udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

Horrez gain, ume eta gazteen taldeen entrenamenduetan eta partidetan, arduradunek euskaraz egin beharko dituzte saio guztiak, bai ahoz, bai idatziz.

15. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, horren inguruko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

16. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Laguntza hauekin batera beste laguntza edo diru-laguntza batzuk ere eskura daitezke.

Udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein diru-laguntzekin bat eginda, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago. Hala gertatzen bada, soberakina Zuiako Udalak emandako diru-laguntzatik kenduko da.

17. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebartziko ditu, informazio batzordeak eta dagokion teknikariak txostena egin aurretik.

ZUIAKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

Zuiako Udalak badaki zer-nolako garrantzia duen hezkuntzak haurren prestakuntzan eta eza-gutzetan nahiz balioetan oinarrituta gero eta gehiago prestatzen den gizartearen eraikuntzan, eta jakin badaki, halaber, familiek hezkuntza egituran betetzen duten eginkizuna garrantzitsua dela, familiak funtsezko faktore baitira hezkuntzaren berariazko helburuak betetzeko, horren oinarritzko zutabeetako bat izanik. Izan ere, gaur egun ukaezina da hezkuntza komunitatearen eta, bereziki, familien parte-hartzea eskola arrakasta bermatzen duen faktorea dela.

Udalak hainbat jarduera garatu ditu udalerriko gurasoen elkarten jarduna sustatzeko eta aldizka lagundu die beren jarduna betetzen.

Ikasleen gurasoen elkarteentzako laguntzen deialdiaren helburua da horrelako elkarteak egon daitezten sustatzea, haien esku-hartzea indartzea eta elkarteek antolatzen dituzten eta ikasleen prestakuntza osoan eta, beraz, haien eskola arrakastan eragin garrantzitsua duten eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak sortutako gastuen zati bat ordaintzea. Era berean, hezkuntza arloko laguntza bereziko beharrak dituzten ikasleentzako baliabide pedagogikoak ezarri nahi dira udalerrian dauden ikastetxeetan. Behar horiek curriculumaren egokitzapenari buruzko instrukzioetan eta indarren dagoen legerian ezarritako beharrezko hezkuntzako salbuespenetan ezarrita daude.

1. Deialdiaren helburua

Ikasleen gurasoen elkarteentzako laguntzen deialdiaren helburua da haien esku-hartzea indartzea eta elkarteek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta opor jarduerak sortutako gastuen zati bat ordaintzea, eta baita ikasleen behar psikopedagogikoen gastu osoa ordaintzea ere. Izan ere, jarduera horiek eragin garrantzitsua dute ikasleen prestakuntza osoan eta, beraz, haien eskola arrakastan, eta gurasoen elkarten eta sistemaren beraren sostengurik gabe ezin litezke bideratu.

2. Onuradunak

Zuiako ikastetxe publikoetako gurasoen elkarteak (IGE) izango dira deialdi honen onuradunak. Erakunde onuradunek derrigorrezko hezkuntza ematen duten ikastetxeekin lotuta egon behar dute.

Laguntza jaso ahal izateko, gurasoen elkarteak Zuiako Udalari zerga-arloan ordaindu beharrekoak, baita Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ere, ordainduta izan beharko ditu eta helburu bereko beste diru-laguntza edo laguntzarik jaso duen udaletxeari jakinarazi.

3. Diruz lagunduko diren jarduerak

Deialdiaren barruan alor hauetarako laguntzak emango dira:

3.1. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak 2022-2023 ikasturtea.

Ikasleentzako jarduera osagarriak eta curriculumetik kanpokoak, eta ikasle zein ikastetxeetako gurasoentzako eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeak sortutako gastuetarako laguntzak emango dira atal honetan.

Jarduerak 2022ko irailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean gauzatu beharko dira.

Ikastetxeko ordezkari organo gorenaren onespina beharko du jarduera proposamenak, eta 2022-2023 ikasturterako urteko planaren barruan sartuta egon.

3.2. Behar psikopedagogikoak 2022/2023.

Arlo honetako diru-laguntzak dagokion ikastetxeko ikasleen behar psikopedagogikoak ordaintzera zuzendutako gastuetarako emango dira. Behar horiek ikastetxeko aholkulariak edo orientatzaileak zerrendatu eta zenbatuko ditu.

Jarduera horiek batez ere ikastetxean bertan garatuko dira, beharrezko iraupenarekin eta behar bezala aprobeztatuz eta, arau orokor gisa, eskola egunetan.

Ikastetxeko ordezkari organo gorenaren onespena beharko du laguntza psikopedagogiko honen proposamenak, eta 2022-2023 ikasturterako urteko planaren barruan sartuta egon, ikastetxeko teknikariek dagokion txostena egin ondoren.

3.3. Hezkuntza proiektuak.

Atal honetako laguntzak ikastetxearen esparruan IGEek sustatuko proiektuak egiteko gastuetarako emango da, proiektu horiek udal honentzat interesgarriak izan ahal badira. Proiektu horiek ikastetxeko ordezkari organo gorenaren babesa izan beharko dute. Diru-laguntzaren zenbatekoa kostuaren ehuneko 100era artekoa izan ahalko da eta kopurua 2022eko aurrekontuan bideratutako jatorrizko partidatik hartuko da.

4. Aurrekontu zuzkidura

Jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoei dagozkien gastu hauek Zuiako Udalaren 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko ondorengo partiden kargura egingo dira: 326.481.000 (18.000,00 euro) eta 326.481.060 (4.000,00 euro).

Laguntza psikopedagogikoari dagozkion gastuak Zuiako Udalaren 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 326.481.070 partidaren kargura egingo dira. Gastu hau 16.000,00 eurokoa izango da.

5. Eskabideak aurkeztea

Deialdian parte hartu nahi duten elkarteek eskabidea aurkeztu beharko dute, baldintza hauei jarraiki:

5.1. 2022/2023 denboraldiko programa edo proiektuetarako eskaerak eta horiekin batera zazpi-garren oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezteko epea 20 egun baliouduneko izango da, ALHAOn deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

5.2. Eskabideen eta agirien aurkezpena udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo Herri Administrazioen administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

5.3. Diru-laguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

5.4. Ezin izango dituzte eskuratu diru-laguntza hauek Diru-Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko IV. tituluaren aipatzen diren arau hausteengatik zigorren bat ezarri zaienek.

6. Berariazko dokumentazioa

Udalak emandako eskabide ofiziala eta inprimakia, (V eta VI eranskinak). Horrekin batera, ikasturte osorako aurreikusitako jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak azaltzen dituen memoria aurkeztu beharko da.

Halaber, beharrezkoa balitz, ikasturte osorako aurreikusitako laguntza psikopedagogikoen programa, txosten teknikoarekin batera, eta dagokion ikastetxeko ordezkari organo gorenaren onespena gehituko dira. Edozein kasutan, datu pertsonalak babesteari buruzko legeria bete eta errespetatu beharko da.

Laguntza psikopedagogikoko zerbitzua aukeratzeari dagokionez, kabinete psikopedagogikoen aurrekontua eta ikastetxeko langile espezializatuek egindako txostena gehituko dira, eta hautatutakoa aukeratzeko kontuan izandako arrazoi ekonomikoak, teknikoak zein profesionalak adieraziko dira.

Eskatzailearen estatutuen fotokopia eta elkarte eta erakundearen erregistroan legez eraturik eta erregistratuta dagoela frogatzen duten agiriak. Aurreko urteetan aurkeztu dituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, aldaketarik izan ez bada.

Gizarte segurantzarekin eta ogasunarekiko zerga-betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria edo udalari emandako baimena, eskaera-ereduaren arabera.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela pentsatuko dela, beste izapiderik gabe.

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

7. Laguntzak emateko prozedura

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari diru-laguntza eman edo ez ebatziko da.

7.1. Espedientea bideratzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa.

Diru-laguntza emateko eskumena alkateak izango du, informazio batzordearen txostena jaso ondoren.

7.2. Aztertzea eta ebaztea.

Teknikariek eskaerak aztertu eta instruktoreari lagunduko diote.

Instrukziogileak jarduera hauek egin behar ditu: ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu, besteak beste arloko teknikariari eta idazkari kontu-hartzaileari, eta eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren espedientea oinarri arautzaileetan azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 22.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik ezarritako kide anitzeko organoari bidaliko zaio eta honek eskaeraren gaineko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren organo instruktoreak behin-behineko ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta. Gero proposamena interesdunei jakinaraziko zaie eta haiek hamar eguneko epealdia edukiko dute alegazioak aurkezteko.

Entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango baldin eta prozeduran interesdunek aurkeztutako gertaerak eta alegazioak baino ez badira agertzen eta kontuan hartzen. Hala denean, ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Ebazpen proposamenean ondoko datuak zehaztu behar dira gutxienez: diruz lagunduko den proiektua, diru-laguntzaren zenbatekoa eta gastuak frogatzeko epealdia.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez. Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Halaber, ebazpenean ondokoen berri emango zaie interesdunei: zer errekurtsio aurkez ditzaketen ebazpenaren aurka, zer organo judiziala aurkeztu behar dizkieten eta zenbateko epealdia daukaten horretarako. Errekurtsioak aurkeztea gorabehera interesdunek nahi dituzten eskubide guztiak erabil ditzakete.

Eskaerak ebazteko epealdia hiru hilekoa izango da aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsizat jo beharko dira.

Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1. artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean, hura jakinarazten den unetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epean errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Laguntzen zenbatekoa zehazteko prozedura.

7.3. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak. 2022-2023 ikasturtea.

Diru-laguntza jasoko dute, lehentasunez, gurasoen elkarteek garatzen dituzten jarduera osagarriak eta curriculum eta eskolaz kanpokoek, horien azken helburua haurren garapen fisiko eta intelektuala baldin bada. Honako programa hauek lehentasuna izango dute:

- Euskararen erabilera sustatu eta bultzatzen dutenek.
- Eskola komunitatearen parte-hartzea eta kohesioa sustatzen dutenek.
- Kulturaren hedapen eta sustapenerako jarduerak eta kirol praktikakoek, ikastetxeko programaren alderdi osagarriak lantzen badituzte.
- Neskatala, mutikoen eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten programek edota ekintzek.
- Baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden taldeen parte-hartzea eta jarduna bultzatu eta bermatzen dituzten programek.

7.4. Behar psikopedagogikoak 2023.

Atal honetan emandako laguntzaren zenbatekoa eskaeran jasotako gastu osoa izango da, dagokion partidaren aurrekontuko mugarekin. Horrela, deialdi honetan honelako laguntzarako ezarritako baldintza guztiak beteko dira.

Laguntza hori hiru hilabeteka ordaindu ahal izango da, IGEEK dagokien ikastetxeko zuzendaritzaren oniritziak aurkeztutako fakturak jaso ondoren. Ikastetxe bakoitzeko IGEEK nahiz zuzendaritzek dagokion kabinete psikopedagogikoak bereganatutako betebeharrak betetzen dituela zainduko dute.

8. Diru-laguntzak emateko irizpideak

8.1. Laguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskabidean eta inprimakian jasotako datuak baloratuko dira, V. eta VI. eranskinekin batera.

8.2. Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak gorabehera, ondoko hauek dira:

— Kirol eta kultura arloko eskolaz kanpoko jarduerak	ehuneko 70
— Eskolaz kanpoko jardueretarako materiala	ehuneko 50
— Antzezlanak, bertsoak, kirol ekitaldiak, ipuin kontalariak, dantza, musika, etab.	ehuneko 70
— Argitalpenak (hezkuntza arloan interesgarritzat jotakoak)	ehuneko 70
— Kultur irteerak eta txangoak eta antzekoak	ehuneko 70
— Kartelak, programak, publizitatea	ehuneko 25
— Berdintasuna: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun sustapena	ehuneko 70

Kontzeptu bakar batengatik diruz lagundu ahal izango da jarduera edo ekintza bakoitza.

9. Laguntzaren bateragarritasuna

Ematen den diru-laguntza bateragarri izango da helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituztenekin, baldin jardueraren gain-finantziatorik gertatzen ez bada. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienezko mugara arte.

Zuiako Udalak beste deialdi batzuetan berariaz diruz laguntzen dituen jarduerak deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

10. Elkarte onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan araututako laguntzen onuradun diren elkarteek betebeharrak hauek izango dituzte:

10.1. Laguntza jaso duten jarduerak edo proiektuak burutzea.

10.2. Zuiako Udalak ikuskatzeko eta finantzak kontrolatzeko egiten dituen lanak onartu eta laguntzea.

10.3. Jarduera edo proiektu bererako beste laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, jakinaraztea.

10.4. Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, hura eman duen erakundeari jakinaraztea.

10.5. Guraso elkarteek jende orori zuzendutako esku-orriak, kartelak, argitalpenak eta abar eginez gero, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte, eta udalaren logotipoa erantsi, beti ere genero estereotipoak erabili gabe.

10.6. Diruz lagundutako jarduerak izan ditzakeen arriskuen erantzukizuna bere gain hartu beharko du elkarteak eta, beharrezkoa bada, dagokion aseguruia kontratatu.

10.7. Guraso elkarteek antolatutako jarduerak, beti ere xede-talde modura umeak eta gazteak badituzte, euskaraz (bai ahoz, eta bai idatziz) garatu beharko dira.

10.8. Prestakuntza-jarduerak (hitzaldiak, tailerrak, etab.) genero-ikuspegia jasoko dute plan-teamenduan, eta kontuan hartuko dituzte emakumeen eta gizonen errealitateak, bai ikasleei bai familiei zuzendutakoak.

Ondoren azalduko diren kontzeptuek eragiten dituzten gastuak ezin dira zenbatu diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko puntuazioaren baremoaren eta gastuen justifikazioaren arabera: otorduak, oro har, joan-etorriak norbere ibilgailuan eta faktura bidez frogatu ezin diren gastuak ere ezin dira zenbatu (ikusitako gastuak frogatzeko modua).

11. Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntzei buruzko ebazpenean elkarte bakoitzaren puntuak zehaztuko dira eta zenbatekoaren ehuneko 75era arte aurreratu ahal izango da. Diru-laguntzaren benetako balioa onuradunak gastuak frogatzen dituen ezarriko da.

12. Diru-laguntza ordaintzea

12.1. Urteko programetan, alde aurretik ordaindu ahal izango da diru-laguntzaren ehuneko 75, gehienez.

12.2. Ezohiko programetan eta jarduera zehaztetan, diru-laguntza ordaintzeko ezinbestekoa da jarduera egin dela frogatzea eta beraren memoria aurkeztea jarduera amaitu ondoren eta diru-laguntza eman duen ebazpenean ezarritako epealdian.

12.3. Diru-laguntzaren zati bat alde aurretik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12.1. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

13. Diru-laguntza justifikatzeko epealdia

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakundeek hurrengo oinarrian adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte diru-laguntza emateko ebazpenean ezartzen den eguna baino lehen, eta ezinbestean 2023ko urriaren azken egun balioduneko mugarekin.

14. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak

– Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren memoria likidazioa (eredua udal bulegoetan eska daiteke); datu hauek adierazi behar dira:

Egindako jarduerak. Aldiak: egunak eta orduak. Parte-hartzaileak, sexuaren arabera bereizita. Helburuak eta balorazioa. Jarduerak sortutako sarreraren eta eragindako gastuen balantzea.

Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...).

Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: fakturak eta hartu agiriak, bankuaren ordain-ketaren frogagiriarekin (fotokopia konpultsatuak), guztira jasotako diru-laguntzaren zati proportzionalari dagokion zenbatekoa jotzen dutenak, gutxienez.

Gastuak frogatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi ezarrita ez dituzten ordainagiriak, fakturak eta gainerakoak:

- Emailea: izena eta NAN edo sozietatearen izena eta IFZ.
- Hartzailea: egoitza eta IFZ (diru-laguntza jaso duen erakundea izan behar da).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- BEZ: aplikatutako zerga tasa(k).

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

– Zinpeko aitortpena: beste administrazio edo erakunde zein organismo publikoren batek xede bererako diru-laguntzarik edo laguntzarik eman dionez. Beste diru-laguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administrazioek eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

– Diruz lagundutako jarduerari buruzko programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.

15. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Diru-laguntza galtzea

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu behar du aurkeztutako proiektua. Gainera, deialdi honetan ezarritako xedapenak bete behar ditu, bai eta diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzan agindutakoa ere.

Hain zuzen ere, erakunde eskatzaileari hauxe gogorarazten zaie: derrigorrezkoa da Zuiako Udalaren babesa aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan, karteletan, idatzietan edo dokumentuetan. Gainera, elementu horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan editatu behar dira.

Ondoko kasuetan erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea abiatu ondoren:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Ezarritako epealdian agiriren bat aurkezten ez bada, berariaz eskatu arren.

– Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrretako bat betetzen ez bada.

Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira Zuiako Udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du udalaren inolako diru-laguntzarik jaso; udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

16. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, horren inguruko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

17. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.

ZUIAKO UDALERRIAN BASERRIAK ETA ETXEBIZITZAK BERRESKURATZEKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da Zuiako udalerrian erabilera nagusia bizitegirakoa duten baserriak, etxebizitzak eta eraikinak berreskuratzeko eta birgaitzeko diru-laguntzak arautzea, arkitektura-ondareari eusteko eta ohiko etxebizitza edo alokairuko etxebizitza erabiltzera bideratzeko, Euskal Gobernuaren alokairu-programen barruan. Laguntzak lehia-erregimenean eta Zuiako Udalaren plan estrategikoan xedatutakoa betez emango dira.

2. artikulua. Finantza-neurriak eta horien izaera

Deialdi honetan araututako finantza-neurriak birgaitze-obra edo esku-hartze partikularretara bideratuko dira, baldin eta, ahal dela, familia bakarreko etxebizitzetan edo, hala badagokio, beste mota bateko etxebizitzetan egiten badira, bai eta jabetza horizontaleko edo higiezin-komplexu pribatuko eraikinetako elementu pribatiboetan ere, etxebizitzetarako erabiltzen diren edo erabiliko diren etxebizitzetan zein lokaletan.

Laguntzaren xede diren obra guztiak kontserbazio eta bizigarritasun-jarraibideen eta eraginkortasun energetiko eta jasangarritasun handieneko irizpideen arabera egin beharko dira, ingurumen-inpaktu txikienarekin, eraginkortasun energetiko handiko eraikinak lortuz (A++, Passivhaus, EnerPhit...). Eraikin horiek, batez ere, energia berriztagarriak kontsumitu eta hone-lakoez hornituko dira.

Deialdi honetan araututako finantza-neurriak diru-laguntzen izaerakoak dira, eta diru-laguntza edo laguntza ez itzulgarri gisa tipifikatuta daude.

3. artikulua. Zerga-onurak

Deialdi honetan araututako finantza-neurriak guztiz bateragarriak dira etxebizitzak eta bizi-tegi-eraikinak birgaitzeko jarduketei dagokienez foru-ogasunek ezartzen dituzten kenkariekin, hobariekin edo bestelako zerga-onurekin.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen kostuak

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin bat etorrita, diruz lagun daitezkeen kostuak etxebizitza, lokal edo eraikinetako elementu komun bakoitzaren jarduketa babesgarriak osatzen dituzten birgaitze-obra eta esku-hartzeekin lotzen diren partida eta kontzeptuen multzora mugatzen dira.

2. Esku-hartzeak babestu gabeko jarduerak biltzen dituzenean, finantza-neurrien lerro honetan deskribatutako jarduketa babestuei dagozkienak bakarrik hartuko dira diruz lagundu daitezkeen kostutzat. Era berean, kasu horietan diruz laguntzeko modukotzat joko dira soilik diruz lagun daitezkeen kostuekiko proportzionalak diren ordainsari teknikoak, obraren kostu osoari dagokionez.

5. artikulua. Babes daitezkeen aurrekontua

Aurrekontu babesgarrizat hartuko dira kostu subentzionagarri hauei dagozkien partidak:

- a) Lanbideko ordainsarien kostuak, obrak egiteko laguntza teknikoko kontratuan adierazitakoak.
- b) Kontrata bidezko exekuzio-aurrekontuko zenbatekoak, obrak gauzatzeko kontratuan adierazitakoak.
- c) Birgaitze-jarduketa horrengatik ordaindutako gainerako eskubideak, tasak eta bestelako prezio publikoak, bai eta Balio Erantsiaren Zergaren kostua ere, baldin eta onuradunek zerga hori jasaten badute eta hirugarrenei jasanarazi ezin badiete.

6. artikulua. Aurrekontu-zuzkidura

1. Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1522.780.000 aurrekontu-partidatik aterako dira. Partida hori udalaren 2023. urterako aurrekontu orokorreko 40.000,00 euroz hornituko da.

2. Laguntzak finantzatzeko urtero esleitutako kredituen zenbatekoa agortu ondoren, ez da laguntza berririk emango.

Hala ere, deialdi honetako arautegiaren arabera erantzuteko baldintza guztiak betetzen dituzten eskabideak, baliabide ekonomikorik ez dutelako beste ezein ziorik gabe ukatzen badira, hurrengo ekitaldi ekonomikoan ebatzi ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak idazki bat bidaltzen badio laguntzak kudeatzen dituen organoari, eskabideari baldintza berberetan eusteko asmoa adieraziz.

II. KAPITULUA. ONURADUNAK

7. artikulua. Onuradunak

1. Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridiko, pribatu edo publiko guztiak oro, ondasun-erkidegoa edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizi, nortasun juridikorik ez izan arren, baldin eta jabe, errentari, gozamedun edo eskubide errealean titular badira, edo familia bakarreko etxebizitza edo birgaitu beharreko eraikineko elementu pribatiboak erabiltzeko eta aprobetxatzeko legitimatzen duen beste edozein eskubide badute, betiere Zuiako udalerrian kokatuta badaude.

2. Ezin izango da onuraduna izan eraikina tolerantzia hutsezko egintza gisa erabiltzen duena, haren gaineko titulu juridikorik duela egiaztatuta gabe.

3. Birgaitze-jarduketan titularra ez bada eraikinaren jabea, haren baimena aurkeztu beharko da, bai eta jabearen eta onuradunaren arteko berariazko akordioa ere, birgaitze-obrak nork ordainduko dituen zehazteko.

4. Onuradunak modu frogagarrian bizi beharko du diru-laguntzaren xede den etxebizitzan, gutxienez hamar (10) urtez, eta konpromiso hori formalizatu beharko du alde aurretik, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, eta obra amaitu ondoren, bertan erroldatuko da, egitate hori agiri bidez justifikatu ahal izango delarik.

5. Birgaitu ondoren, onuradunak Eusko Jaurlaritzaren alokairu-merkatuko bitartekaritza-programetan sartu beharko ditu ateratzen diren etxebizitza guztiak, gutxienez 10 urtetarako, bere ohiko etxebizitza izan ezik, hala balegokio. Horretarako, konpromiso hori alde aurretik formalizatu beharko du erantzukizunpeko adierazpen bidez.

6. Ezin izango dira laguntza hauen onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan edo horren ordezkoko arautegian jasotako egoeraren baten eraginpean dauden pertsonak.

7. Era berean, ezin izango dute diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratu eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik jaso, ez eta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriatik debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritik.

8. Onuradun izateko debekurik ez izatearen justifikazioa erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz egin ahal izango da.

9. Eskatzaileek egunean egon behar dute udalarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta foru-ogasunarekiko zerga-betebeharrak.

8. artikulua. Betekizun gehigarriak

Beharrezkoa izango da esku-hartzearen xede den etxebizitza honako hau izatea:

a) eskatzailearen edo eskatzaileen ohiko etxebizitza iraunkorra, gutxienez hamar urtetarako, gehien dela 3 hilabeteren epean, gauzatutako obraren ziurtagiriaren datatik zenbatzen hasita; edo

b) Eusko Jaurlaritzaren alokairu-merkatuko bitartekaritza-programetako batean sartuta dauden edo, gutxien dela, hamar urtez sartuko diren etxebizitzak.

c) Esku-hartzearen ondorioz sortzen diren etxebizitzak Eusko Jaurlaritzaren alokairu-programaren esku jarriko dira gutxien dela hamar urtez, jabearen ohiko etxebizitza gisa erabiltzen ez badira.

III. KAPITULUA. JARDUKETEN XEDE DIREN ERAIKINAK

9. artikulua. Esku-hartzearen xede diren eraikinen betekizunak

1. Jarduketa babesgarri horien xede izan daitezke familia bakarreko etxebizitzak eta jabetza horizontaleko edo higiezin-konplexuko erregimeneko eraikinetako elementu pribatiboak, etxebizitza edo bizitegi gisa erabiltzen direnak, baldin eta laurogei (80) urtetatik gorako antzinatasuna badute, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturik.

2. Jarduketaren xedea jabetza horizontaleko edo higiezin-konplexuko erregimeneko eraikinen elementu pribatiboak direnean, ez da baldintza izango nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinetan erabiltzea, baina egiaztatu beharko dute eskatzailearen ohiko etxebizitza gisa erabiltzen direla, edo, hala badagokio, esku-hartzearen xedea lokala bizitegi-erabilera horretara egokitzea dela, deialdi honetan ezarritako baldintzetan.

3. Nolanahi ere, ez da eskatuko eraikin osoan alde aurretik Eraikinen Azterketa Teknikoa egin izana, salbu eta delako agiri hori legez derrigor izan behar duten familia bakarreko etxebizitzak eta baserrien kasuan.

4. Egin beharreko esku-hartzeek interes kulturekotzat jotako edo beste edozein babes-araubideren mende dauden eraikinei eragiten badiete, aldeko txostena edo baimena eskuratu beharko da alde aurretik, aplikatu beharreko babes-araubidea kudeatzeko eskumena duen organoak emanda, zein bere arautegiaren arabera.

IV. KAPITULUA. JARDUKETA BABESGARRIAK ETA LAGUNTZEN ARAUBIDEA

10. artikulua. Jardun babesgarrien betekizunak eta baldintzak

1. Deialdi honetan babestutako jarduketak bertan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eraikinetan egingo dira.

2. Lokaletako jarduketak babestu ahal izateko, ezinbestekoa izango da etxebizitzara bideratzea.

3. Jarduketek bermatu beharko dute bizigarritasun-araudia betetzen dela.

4. Etxebizitzako barne-espazio bizigarria handitzeko edo lokalak edo hainbat gela etxebizitza bihurtzeko esku-hartzeak egiten direnean, ondoriozko etxebizitzek bizigarritasun-baldintzak bete beharko dituzte, eta guztizko azalera erabilgarria izango dute, gehienez ere 90 m²-takoa, edo etxebizitzak eraikitzeo unean babes publikoko erregimenean ezarritako gehieneko azalera. Hala ere, azalera handiagoa duten etxebizitzak diruz lagundu ahal izango dira, dagoen azaleraren banaketa arrazionalaren arabera. Kasu horietan, diru-laguntza erreferentziatzko gehieneko azaleraren proportzioan mugatuko da.

5. Ez da aintzat hartuko, ez eta finantza-neurrien helburu ere, deialdi honen helburuetara hertsiki bideratuta ez dagoen edozein esku-hartze.

6. Nolanahi ere, beharrezkoa izango da elementu pribatiboen, etxebizitzaren edo lokalen gaineko jarduketa babestuek nahitaezko obra-lizentzia izatea.

7. Gutxieneko aurrekontu babesgarriak 50.000,00 eurotatik gorakoa izan beharko du.

8. Gehieneko aurrekontu babesgarria zehaztu ahal izateko, etxebizitzaren edo lokalaren gehieneko azalera erabilgarriari aplikatuko zaio Zuiako udalerriri dagokion metro koadro erabilgarriaren prezioa, araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteko sisteman adierazita.

9. Aurrekontu babesgarriaren gehieneko muga zehazteko gehienez konputa daitekeen azalera erabilgarria, azalera errealak zifra horiek gainditzen baditu ere, honako hau izango da:

a) Etxebizitzetarako, 90 m² erabilgarri eta 120 m² erabilgarri, familia ugarien edo 5 kide edo gehiagoko bizikidetzaren kasuan.

b) Etxebizitzari edo lokalari atxikitako garaje eta trastelekuetarako, 30 m² erabilgarri. Lotura behar bezala egiaztatuta dagoela ulertuko da, baldin eta jabetza erregistroan inskribatuta badago edo etxebizitzaren edo lokalaren pertsona edo erakunde titularra jabeen erkidego bereko garaje edo traste-lekuarena ere badela frogatzen bada.

c) Etxebizitzarako lokalen kasuan, gehieneko azalera erabilgarri konputagarria 90 m²-takoa izango da beti, deialdi honen 11.4 artikuluan jasotako salbuespenarekin.

11. artikulua. Jarduketan denbora-eremua

1. Laguntza hauen xede diren jarduerak gehienez ere urtebeteko (1) epean amaitu beharko dira, laguntzak ematea erabakitzen duen ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

2. Behar bezala justifikatutako pertsona edo erakunde onuradunaren borondatearekin zeri-kusirik ez duten arrazoiak daudenean, pertsona edo erakunde onuradunak, ezarritako exekuzio-epea amaitu baino lehen, epea luzatzeko eskatu ahal izango du. Epea luzatzea ez da izango justifikatutako atzerapen-denbora baino luzeagoa.

12. artikulua. Dirulaguntzen ezaugarriak

1. Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, aurrekontu babesgarria, obra-mota eta bizikidetzaren diru-sarrera haztatuak hartuko dira kontuan, taula honetan ezarritako zenbatekoen arabera:

DIRUSARRERA HAZTATUAK	OBRAK
25.000 eurotara arte	Ehuneko 15a
25.000 eurotatik gora	Ehuneko 12a
Gehienez	15.000 euro

1. taula: laguntzen ehunekoak eta mugak obra partikularretan.

2. Lokalak edo bestelako gelak birgaitzen badira etxebizitza gisa erabiltzeko, eta, betiere, dagozkien arautegiek eskatzen dituzten baldintzak errespetatzen badira, laguntzaren zenbatekoa aurrekontu babesgarriaren ehuneko 20 handituko da, 4.000,00 euro gehienez, ondoriozko etxebizitza bakoitzeko.

3. Etxebizitzen edo lokalen pertsona edo erakunde titularrek itzuli beharrik gabeko laguntzak itzultzea bermatu beharko dute, 17. artikuluan aurreikusitako moduan.

13. artikulua. Laguntzen bateragarritasuna

1. Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak dira beste administrazio batzuek helburu bererako eman ditzaketen beste laguntza batzuekin, baldin eta horiek bateragarritasun hori ezartzen badute.

2. Laguntza bateragarrien zenbatekoak ezin izango du, inola ere, diruz lagundutako jardueren kostua gainditu, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntzekin edo laguntzekin eta helburu bererako beste edozein diru-sarrera edo baliabideekin batera. Kasu horretan, burutu beharreko izapideak burutu ondoren, emakidaren ebazpena aldatuko da eta emandako laguntza legokiokkeen kopuruan gutxituko da.

V. KAPITULUA. LAGUNTZAK IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

14. artikulua. Eskarien aurkezpena: Interesatuena eskubideak eta betebeharrak

1. Finantza-neurriak emateko prozedura birgaitze-jardueren titularrek aurkeztutako eskaeraren bidez hasiko da. Eskabidearekin batera, neurri horien onuradun izateko beharrezkoak diren baldintzak eta betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

Eskaera horretan aurkeztu ahal izango dira abian den urtean hasitako obrak eta, hala balegokie, laguntza hauen aurreko deialdia amaitu ondoren hasitako obren eskaerak.

2. Eskabideak berekin dakar erantzukizunpeko adierazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu ategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikulua 6. paragrafoan aipatzen dena.

15. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Interesdunek eskabidea aurkeztu beharko dute, beharrezko dokumentazioarekin batera, udalaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eredu ofizialaren arabera.

2. Eskabideak obrak gauzatzeko egutegia jaso behar du. Horiek, gehienez ere, hiru aurrekontu urtekotan gauzatu eta finantzatu beharko dira: lehenengoa, eskabidea aurkeztu den urteari dagokiona izango da, eta gainerakoak, berriz, jarraiak letozkeen hurrengo urtekoak.

3. Eskabidea izapidetzeko onartu ondoren, laguntzak kudeatzeko ardura duen organoak egoki irizitako informazioa eskatu ahal izango dio erakunde eskatzaileari, 10 egunen epean eman dezan, aurkeztutako dokumentazioa behar bezala baloratu ahal izateko eta adieraziko dio, hala egin ezean, dokumentazioa baloratuko dela, eskatutako informazioa aintzat hartu gabe.

16. artikulua. Onuradunen betebeharrak

1. Deialdi honetan araututako subentzioa eta diru-laguntza itzulgarrien pertsona eta erakunde onuradunek bete beharko dituzte Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 56. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu ategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak.

2. Bereziki, pertsona eta erakunde onuradunek honako betebeharrak hauek dituzte:

a) Emandako laguntza onartzea. Horretarako, laguntza ematen duen erabakia jakinarazi eta hamabost egunen epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat joko da.

b) Laguntza emateko betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea; bereziki, laguntzen xede den ekintza gauzatzea, behar bezala gauzatzeko lizentziak, baimenak eta gainerako baldintza sektorialak behar bezala eta hitzartutako epeetan betez.

c) Laguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.

d) Obretarako sarbidea erraztea udaleko zerbitzu teknikoei, obren jarraipena egiteko eta obren azken egiaztapena egiteko.

e) Helburu bererako lortutako diru-laguntza, subentzio, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea udalari.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko eta subentzioak itzultzeko betebeharrak ordaintzeko baldintzak betetzen jarraitzea. Emandako laguntza likidatu arte eutsi beharko zaie betekizunei.

g) Laguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar objektibo zein subjektibo aldatuko balitz, udalari eman beharko zaio horren berri, jakin bezain laster eta betiere justifikazio-izapidea egin aurretik, bai eta jasotako funtsak itzultzea ere, legokiokeen itzulketa-espeditatea osatu ondoren hala eskatuko balitzaio.

h) Eskatutako informazioa ematea, laguntza jaso duten birgaitze-obrei buruz eta eskatzen zaizkion formatuetan ematea.

i) Agiri bidez justifikatzea, urtero, ezarritako epea agortu arte, etxebizitzan ohikotasunaz bizi delako baldintza betetzen dela, egiaztagiriko objektibo bidez.

17. artikulua. Jasotako diru-laguntzak itzultzeko betebeharra

1. Etxebizitza edo lokalen pertsona edo erakunde titularrek, deialdi honetan araututako laguntza gisa 6.000,00 euro edo gehiagoko laguntza ekonomikoak jaso badituzte, ezin izango dituzte etxebizitza edo lokal horiek inter vivos borondatez xedatu, ez eta mortis causa eskualdatu ere, gauzatutako obraren ziurtagiritik 10 urtetako epean, jasotako laguntzak itzuli direla egiaztatuta gabe eta itzultzerakoan eguneratuta, hala balegokio, legezko interesarekin batera.

2. Itzultzetik kanpo geratzen dira, etxebizitzaren edo lokalaren titularkideetako baten alde egiten diren esleipenak, izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatutako edo inskribatu gabeko ezkontza-banantze, dibortzio edo bikoteen haustura prozesuen ondorioz egiten direnak, bai eta bizikidetzaren unitateak haustearen ondorioz gertatzen direnak ere, lehenengo mailako odol-ahai-detasuneko harreman baten bidez elkartutako pertsonen osatutakoak.

3. 6.000,00 euro edo gehiagoko laguntza ekonomikoak emateko ebazpena jakinarazi ondoren, etxebizitzaren edo lokalaren pertsona edo erakunde titularrak alde bakarreko hipoteka eratu eta inskribatu beharko du jabetza erregistroan Zuiako Udalaren alde, 1. paragrafoan aurre-ikusitako lehengoratzea bermatzeko.

4. Behin Zuiako Udalak erregistroan alde bakarreko hipoteka bat bere alde inskribatu dela egiaztatzen duen agiria jasota eta aurreikusitako gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duenean, laguntza eta/edo sorospena ordaintzeko aginduko da. Era berean, mailegua emango duen kreditu-establezimenduak kontratua sinatu ahal izango du.

5. Errentariak egin eta pertsona edo erakunde jabeak baimendutako esku-hartzeen kasuan, pertsona edo erakunde jabeak konpromisoa hartuko du Zuiako udalaren aurrean alde bakarreko hipoteka eratuko duela honen alde, baldin eta etxebizitzaren edo lokalaren inter vivos edo mortis causa eskualdaketa gertatzen badira 10 urtetan zehar, 1. paragrafoan aurreikusitako itzulketa bermatzeko gauzatutako obraren ziurtagiritik zenbatzen hasita, errentariak bete beharreko baldintzak beteko ez balitu.

6. Artikulu honetan aipatzen diren pertsonen edo erakundeek, edozein inter vivos titularen bidez etxebizitzaren edo lokalaren gaineko jabetza edo beste edozein eskubide eskualdatu badute, ezin izango dute laguntza berririk jaso artikulu honetan ezarritako itzulketa jasotzen ez den bitartean.

18. artikulua. Diruz lagundutako jardueren publizitatea eta zabalkundea egiteko betebeharra

1. Diruz lagundutako jarduerak Zuiako Udalaren finantzaketa jaso dutela adierazi beharko dute.

Ondorio horietarako, administrazio-ebazpenaren jakinarazpenarekin batera, kartel baten eredu bidaliko zaie jabeei. Kartelaren gutxieneko tamaina A3 izango da.

2. Deialdi honetan araututako laguntzak jasotzen dituzten eraikinetan kartela ikusgai jarriko da, atearen ateburutik edo sarrerako ateetatik hurbil.

Informazio-kartel hori bide publikotik ikusteko moduan jarri beharko da obrak burutzen diren bitartean. Era berean, pertsona edo erakunde onuradunek, obraren azken ziurtagiriarekin batera, kartela bide publikotik ikusteko moduan jarri dela jasotzen duen argazkia bidali beharko diote Zuiako udalari.

19. artikulua. Laguntzen justifikazioa. Obren amaieraren jakinarazpena eta gauzatutako obraren ziurtagiria

1. Jarduketan titularrek urte bakoitzean justifikatu beharko dute gauzatutako inbertsioa obra-ziurtagiriaren bidez, teknikari eskudunak edo obraren enpresa kontratistak emana.

2. Obrak egiteko edo, hala badagokio, luzatzeko epea amaitzen denetik hilabeteko epean, justifikatu beharko dute obrak egin izana birgaitze-jarduketan pertsona edo erakunde titularrek Zuiako udalaren aurrean, esku-hartzearen edo esku-hartzeen kontzeptu bakoitzaren azken zerbatekoa zehaztuta, eta honako hauek atxiki behar dituzte:

a) Obren fakturak eta ziurtagiriak, enpresa jaulkitzailearen IFZ, birgaitze-jarduketan pertsona edo erakunde titullarrak, data, zenbakia eta BEZa barne jasoko dituztenak.

b) Egindako obraren koloretako argazkiak.

c) Proiektuari buruzko informazio-kartelaren koloretako argazkia, erraz eta ondo ikusteko moduko leku batean jarrita.

d) Obrak egiteko udal-lizentzia eta horretarako eska litezkeen udal-zergen ordainagiria, indarreko arautegiaren arabera. Lizentzia hori beharrezkoa ez bada, obra hasi baino lehenagoko jakinarazpena.

e) Obraren azken ziurtagiria, teknikari eskudunak emana eta bere elkargo profesionalak bisatua, gauzatutako obraren izaerak hala eskatzen badu.

f) Zuzendaritza fakultatiboaren obra-likidazioa, dagokion elkargo profesionalak bisatua, egindako obraren izaerak hala eskatzen badu.

g) Eraikin amaituaren eta erregistratuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eta dagokion etiketa energetikoa, hasierako produktibitate eta jarraipen-adierazleak eta obrak egin ondoren lortutakoak adierazita, eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozeduraren arloan indarrean dagoen arautegian aurreikusitakoaren arabera.

3. Obren amaierari buruzko komunikazioarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertuz gero, gerta daiteke emandako laguntza publikoa edo finantzaketa kualifikatua murriztea. Obrak egiten ez badira edo eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, laguntzak ezeztatu egingo dira.

20. artikulua. Laguntzen baldintzak edo aurrekontu babesgarria aldatzea

1. Birgaitzeko jarduketaren titularra, betiere pertsona fisikoa bada, ordeztuko balitz finantza-neurriak aitortu dizkion administrazio-ebazpena eman ondoren, laguntza ezeztatuko da eta jardueraren titular berriaren aldeko ebazpena eman ere, titular berriak deialdi honetan aurreikusitako baldintzak betetzen baditu.

2. Laguntzak emateko kontuan hartutako baldintzarik aldatzen balitz, betiere, laguntzen xedea betetzat jotzen bada, eta, hala balegokio, beste edozein erakunde publiko zein pribatuk aldi berean beste laguntza eta diru-laguntza batzuk emango balitu, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio organo kudeatzaileari, berariaz onar ditzan.

Finantza-neurriak emateko kontuan hartu diren baldintzarik aldatuko balitz, emakida-ebazpena aldatu ahal izango da, betiere haren xedea betetzat jotzen bada. Ondorio horietarako, organo eskudunak dagokion aldaketa edo likidazio-ebazpena emango du, non doituko baita emandako finantza-neurrien zenbatekoa, ematerakoan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuz, eta, behar izanez gero, onuradunak soberan jasotako zenbatekoa itzuli beharko du. Laguntzak doitzeak ez du inola ere ekarriko hasierako ebazpenean emandako zenbatekoa baino handiagoa aitortzea.

3. Aldaketak ezin izango dio inola ere jarduketaren izaerari eragin.

4. Obrek dirauten bitartean, eta aurrekontuan jasotako kontzeptuen barruan, partiden kostua beherantz aldatzen bada, emandako ebazpena aldatu egingo da, baldin eta aurrekontu babesgarria edo diruz lagun daitezkeen kostuak murrizten badira, oro har kalkulaturik, eta, ondorio horietarako, murrizketa-ebazpen bat eman ahal izango da.

Obrek dirauten bitartean aurrekontu babesgarria edo diruz lagun daitezkeen kostuak gorantz aldatzen badira, edo horien kontzeptuak edo partidak aldatzen badira, onuradunek beste laguntza-eskaera bat izapidetu ahal izango dute partida berriengatik edo kostuak handitzeagatik. Hala ere, emandako administrazio-ebazpena eta emandako laguntzak aldatu gabe mantendu ahal izango dira, baldin eta aurrekontuko partida edo kontzeptuek ez badakarte aitortutako laguntzak handitzea edo, hala gerta badaiteke, laguntza horiek handitzea eskatzen ez bada.

21. artikulua. Ez-betetzea eta itzultzeko prozedura

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan edo hura ordeztzen duen arautegian araututako kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluan araututako kasuetan, edo diru-laguntzen onuradun den pertsonak edo erakundeak ez badu betetzen arau honetan aipatzen diren baldintza eta betekizunetako edozein, deklaraturik da emandako laguntzarako eskubidea galdu duela eta, hortaz, emandako diru-kopuruak itzuli beharko ditu, berandutze-interesak barne, ordainketa-datatik aurrera.

Era berean, diruz lagundutako jardueraren kostutik gora lortutako zenbatekoa itzuli beharko da, bai eta diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesa ere.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Zuiako Udaleko instrukzio-organoek ofizioz egiaztatu, kontsultatu eta egiaztatu ahal izango dituzte prozedura horietan parte hartzen duten pertsonen nortasun-datuak, bai interesdun gisa, bai ordezkari gisa.

Nortasun-datu horiek ofizioz egiaztatzeko, kontsultatzeko eta egiaztatzeko, administrazioen artean datu elektronikoak trukatzeko ezarritako sistemak erabiliko dira; berariaz, baina ez modu eskusiboan, nortasun-datuak kontsultatzeko eta egiaztatzeko, nortasun-datuak kontsultatzeko eta nortasun-datuak egiaztatzeko zerbitzuen bidez.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

Kirol, kultura, gizarte eta hezkuntza elkarteak - Diru laguntza eskabidea
Asociaciones deportivas, culturales, sociales y educativas - Solicitud de subvención


Elkartea/ Asociación		IFK / CIF	
Helbidea / Domicilio		Herria / Población	PK / CP
E-mail		Telefonoa	Bazkide kopurua / N° de socios/as
Banketxea / Banco		Kontu korrontearen zenbakia / Número de cuenta corriente	
Izen-deiturak (ordezkaria)/ Nombre y apellidos (representante)			NAN-AIZ / DNI-NIE
Bazkideen %50a Zuian erroldatuta dago? / ¿El 50% de las personas asociadas están empadronas en Zuia?			
Bai <input type="checkbox"/>		Ez <input type="checkbox"/>	
Si <input type="checkbox"/>		No <input type="checkbox"/>	
Zenbat emakume daude elkarteetan? / ¿Cuántas mujeres hay en la asociación?			
Eskatu edo jaso al duzu xede berberarako bestelako laguntzarik? (jaso badira, zenbatekoa azaldu): ¿Has solicitado o recibido otras ayudas para el mismo fin? (si se han recibido, especificar importe):			
<input type="checkbox"/> Bai, zehaztu zenbatekoa / Si, especificar importe		<input type="checkbox"/> Ez dut jaso edo eskatu/No he recibido ni solicitado ninguna	
Administrazio edo enpresa /Administración o empresa			Zenbatekoa / Importe
Baimena ematen diot espresuki Zuiako Udalari sektore publikoko edozein entitatetatik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan izenburuan agertzen den diru laguntza eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla.		Autorizo expresamente al Ayuntamiento de Zuia para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la solicitud de subvención indicada en el título de este impreso.	
<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez		<input type="checkbox"/> Sí <input type="checkbox"/> No	
*Ezezkoan, aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.		*En caso negativo se deberá aportar tal documentación.	
Elkarte honek Zuiako Udalak deitutako bileretan parte hartzen duela adierazten dut. <input type="checkbox"/>		Declaro bajo mi responsabilidad que esta asociación participa en las reuniones convocadas por el Ayuntamiento de Zuia <input type="checkbox"/>	
Diru-laguntzei buruzko azaroaren 2003 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. Artikuluko baldintzak betetzen ditudala adierazten dut. <input type="checkbox"/>		Declaro que cumplo los requisitos del art.13 de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre de 2003 <input type="checkbox"/>	
Nire erantzukizunpean adierazten dut goian azaldutako datuak egiazkoa direla. <input type="checkbox"/>		Declaro bajo mi responsabilidad que los datos indicados arriba son ciertos <input type="checkbox"/>	
Aurkezten den dokumentazioa		Documentación que se presenta	
Kirola – I. eranskina <input type="checkbox"/>	II. eranskina <input type="checkbox"/>	Deporte – Anexo I <input type="checkbox"/>	Anexo II <input type="checkbox"/>
Kultura – III. eranskina <input type="checkbox"/>	IV. eranskina <input type="checkbox"/>	Cultura – Anexo III <input type="checkbox"/>	Anexo IV <input type="checkbox"/>
Beste – V. eranskina <input type="checkbox"/>	VI. eranskina <input type="checkbox"/>	Otro – Anexo V <input type="checkbox"/>	Anexo VI <input type="checkbox"/>
Memoria <input type="checkbox"/>		Memoria <input type="checkbox"/>	

Sinadura / Firma

Murgia, 2023ko _____ aren (e)an

Udal plaza, 1
Murgia - ZUIA
01130 ARABA

945 430 005
<http://www.zuia.eus/>
zuiakoudala@ayto.araba.eus

AYUNTAMIENTO DE ZUIA MURGIA (ALAVA)		ZUIAKO UDALA MURGIA (ARABA)
Datu babesari buruzko informazioa		Información adicional protección de datos
Tratamenduaren arduraduna		Responsable del tratamiento
Identitatea: Zuiako Udala – IFZ P0107200H Helbidea: Udal plaza,1 – 01130 Murgia (Araba) Telefonoa: 945 430 005 E-mail: zuiakoudala@ayto.araba.eus Datuen Babesaren Ordezkaria: azuia.dbo@ayto.araba.eus		Identidad: Ayuntamiento de Zuia – NIF P0107200H Dirección: Plaza del ayuntamiento,1 – 01130 Murgia (Álava) Teléfono: 945 430 005 E-mail: zuiakoudala@ayto.araba.eus Delegado/a Protección de Datos: azuia.dbo@ayto.araba.eus
Tratamenduaren xedea		Finalidad del tratamiento
Helburua: Eskatutako diru-laguntzei dagokien informazio pertsonalaren kudeaketa. Gordetzeko epeak: Subentzioen espedienteak Diru-laguntzaren deialdiko espedientearen kontserbazio iraunkorra Urte 1 ukatutako banakako espedientetarako eta 8 urte diru-laguntza onartutako espedientetarako.		Finalidad: Gestión de la información personal relativa a la concesión de subvenciones solicitadas. Plazos de conservación: Expedientes de subvenciones Conservación permanente del expediente de convocatoria de lasubvención. 1 año para expedientes individuales denegados y 8 años paraexpedientes concedidos.
Legitimazioa		Legitimación
Botere publikoaren egikaritza DBEOren 6.1.e) artikulua 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorra 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena		Ejercicio de la potestad pública: art. 6.1.e) RGPD Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones
Hartzaileak		Personas destinatarias
Legeak ezarritakoak eta tratamendu honen esparruan aplikagarri direnak.		Las establecidas legalmente y que sean de aplicación en el ámbito de este tratamiento.
Eskubideak		Derechos
Interesdunek honako eskubide hauek dituzte: <ul style="list-style-type: none"> Zuiako Udala interesdunen datu pertsonalak tratatzenari den ala ez dioen baieztapena jasotzeko eskubidea. Haien datu pertsonaletara sarbide izateko, okerrak diren datuen zuzenketa eskatzeko, edo, kasuan kasu, ezabatze eskubidea, datuak jaso ziren beharizantarako jada beharrezkoak ez direnean. Egoera jakin batzuetan honako hauek eskatzeko: <ul style="list-style-type: none"> Datuen tratamendua mugatzea. Kasu horretan, Zuiako Udalak erreklamazioen aurrean defendatzeko edo haiek egikartzeko gordeko dituzoilik. Datuen tratamenduaren aurka egitea. Kasu horretan, Zuiako Udalak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta arrazoi legítimo larriak baldin badaude edo erreklamazio posibleen defentsa edo egikaritzea badago. Banakako erabaki automatizatuertarako datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere erabil dezake. Eskubide horiek Zuiako Udalaren aurrean egikaritu ahal izango dira. Helbidea: Udal plaza, 1- 01130 Murgia (Araba). Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babesarako Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa jarri ahal izango da. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 - 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz.		Las personas afectadas tienen derecho a: <ul style="list-style-type: none"> Obtener confirmación sobre si el Ayuntamiento de Zuia está tratando sus datos personales. Acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar la supresión cuando, entre otros motivos, los datos ya no sean necesarios para las finalidades para las cuales fueron recabados. Solicitar en determinadas circunstancias: <ul style="list-style-type: none"> La limitación del tratamiento de sus datos, en cuyo caso sólo serán conservados para el ejercicio o la defensa de reclamaciones. La oposición al tratamiento de sus datos, en cuyo caso, el Ayuntamiento de Zuia dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Incluido el tratamiento de sus datos para decisiones individuales automatizadas. Los derechos podrán ejercerse ante el Ayuntamiento de Zuia – C/ Plaza del ayuntamiento, 1 – 01130 Murgia (Álava) Si en el ejercicio de sus derechos no ha sido debidamente atendida o atendido, podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Dirección: C/ Beato Tomásde Zumárraga, 71 – 3ª planta - 01008 Vitoria-Gasteiz.
Udal plaza, 1 Murgia - ZUIA 01130 ARABA		945 430 005 http://www.zuia.eus/ zuiakoudala@ayto.araba.eus

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

ANEXO I
KIROL EKINTZAK – ACTIVIDADES DEPORTIVAS

BESTE IRIZPIDE PUNTUAGARRI BATZUK
OTROS CRITERIOS PUNTUABLES

ENTRENATZAILEAK/ENTRENADORES	TITULAZIOA TITULACIÓN	
EUSKARA	BAI/SI	EZ/NO
Ume eta gazteen taldeetako entrenatzaileen euskararen sozializaziorako ikastaroa egindo dute? ¿Realizarán el curso de socialización para el uso del Euskara para los/as entrenadores/as de grupos infantiles y juveniles?		
FITXAK - FICHAS	NEKAK	MUTILAK
Federazio fitxen kopurua - Nº fichas federativas		
Eskolako fitxen kopurua - Nº fichas escolares		

BERDINTASUNA/ IGUALDAD	
Zenbat emakumezko entrenatzaile daude elkartean? ¿Cuántas entrenadoras mujeres hay en la asociación?	
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten jardueren kopurua Nº de actividades que promueven la igualdad entre hombres y mujeres	

Izena/Nombre:

Kargua/Cargo:

NAN/DNI:

Sinadura/Firma:

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • 945 430005 • Fax: 945 430366
✉ zuiakondala@gyfo.alava.net • Web: www.zuia.com

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

ANEXO II - JUSTIFIKAZIOA
KIROL EKINTZAK – ACTIVIDADES DEPORTIVAS

DIRUSARRERAK ETA GASTUAK/INGRESOS Y GASTOS

GASTU GUZTIAK/ GASTOS TOTALES	
GASTU KONPUTAGARRIAK / GASTOS COMPUTABLES	ZENBATEKOA IMPORTE
Arbitroak Arbitros	
Materialak Materiales	
Entrenatzaileak Entrenadores	
Federazio-gastuak Gastos Federativos	
Jardueraren berariazko segurua Seguro específico de la actividad	
Ambulantziak, medikuak, botikina... Ambulancias, médicos, botiquín...	
Lekua edo materiala alokatzea (zehaztu) Alquiler de material o espacios (concretar)	
GASTU EZ KONPUTAGARRIAK/ GASTOS NO COMPUTABLES	ZENBATEKOA/IMPORTE
Kirol-ekipamenduak, janaria, ostatuak... Equipamientos deportivos, comidas, hospedajes...	

Izena/Nombre:

Kargua/Cargo:

NAN/DNI:

Sinadura/Firma:

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

DIRUSARREREN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE INGRESOS	
KONTZEPTUA/CONCEPTO	ZENBATEKOA/IMPORTE

ESKATU EDO JASO AL DUZU XEDE BERBERARAKO BESTELAKO LAGUNTZARIK? (jaso badira, zenbatekoa azaldu) ¿HAS SOLICITADO O RECIBIDO OTRAS AYUDAS PARA EL MISMO FIN? (si se han recibido, especificar importe)	
<input type="checkbox"/> BAI/SI	<input type="checkbox"/> EZ/NO
ADMINISTRAZIOA EDO EMPRESA / ADMINISTRACIÓN O EMPRESA	ZENBATEKOA/IMPORTE

Izena/Nombre:**Kargua/Cargo:****NAN/DNI:****Sinadura/Firma:**

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • 945 430005 • Fax: 945 430366
 zuiakondala@ayto.alava.net • Web: www.zuia.com

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

ANEXO III
KULTUR EKINTZAK – ACTIVIDADES CULTURALES

IRIZPIDE PUNTUAGARRIAK
CRITERIOS PUNTUABLES

ELKARTEAREN IZENA– NOMBRE DE LA ASOCIACIÓN:								
EKINTZA ACTIVIDAD	Partehartzaileen kopurua Nº participantes	Egunak adierazi Nº días actividad	AUTOFINANZAKETA AUTOFINANCIACIÓN (Cuotas, otras subvenciones..)	Ekintzaren aurrekontua Presupuesto total de la actividad	Ekintza EUSKARAZ? ¿en EUSKARA?		¿Promueve la igualdad? Berdintasuna	
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No
					Bai/Sí	Ez/No	Bai/Sí	Ez/No

Izena/Nombre:

Kargua/Cargo:

NAN/DNI:

Sinadura/Firma:

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • 945 430005 • Fax: 945 430366
✉ zuiakoudala@gyfo.alava.net • Web: www.zuia.com

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

ANEXO IV
KULTUR EKINTZAK – ACTIVIDADES CULTURALES

DIRUSARRERAK ETA GASTUAK/INGRESOS Y GASTOS

GASTU GUZTIAK/ GASTOS TOTALES	
GASTU KONPUTAGARRIAK / GASTOS COMPUTABLES	ZENBATEKOA IMPORTE
Monitoreak, gidariak, hizlariak Monitores, guías, ponentes	
Lekua edo materiala alokatzea (zehaztu) Alquiler de material o espacios (concretar)	
Erakusketak, ekitaldiak... Exposiciones, actuaciones...	
Argitalpenak (liburuak, aldizkariak...) Publicaciones (libros, revistas..)	
Jardueraren berariazko segurua Seguro específico de la actividad	
Sarrerak Entradas	
Material suntsikorra Material fungible	
Garaikurrak, autobusak, taldeko garraioaren alokairua Trofeos, premios, autobuses, alquiler transporte colectivo	
Kartelak, programak, publizitatea, lunch Cartelería, programas, publicidad, lunch	
GASTU EZ KONPUTAGARRIAK/ GASTOS NO COMPUTABLES	ZENBATEKOA/IMPORTE

DIRUSARREREN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE INGRESOS	
KONTZEPTUA/CONCEPTO	ZENBATEKOA/IMPORTE

Izena/Nombre:**Kargua/Cargo:****NAN/DNI:****Sinadura/Firma:**
 Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • 945 430005 • Fax: 945 430366
 zuiakoudala@gyfo.alava.net • Web: www.zuia.com

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

ANEXO V
AYUNTAMIENTO DE ZUIA

FORMULARIO 2023 - FORMULARIOA	
ZUIAKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEA ASOCIACIÓN DE MADRES Y PADRES DE ALUMNOS Y ALUMNAS DE ZUIA	
<i>Ilundutako guneak UTZI idatzi gabe / NO rellenar los espacios sombreados</i>	
Egitaraua / Programa	
Antolatuko diren ekintzak Actividades a realizar	
Data/Fechas	
Tokia/ Lugar	
Helburuak Objetivos	
Jardueraren proiektua beste formato batean aurkez dezakezu / Puedes presentar el proyecto en otro formato	
PARTEHARTZAILEEN KOPURUA / NÚMERO DE PARTICIPANTES	
Partehartzaileen kopurua adierazi/ Señalar número de participantes	
IRAUPENA / DURACION	
Egunak edo jardunaldiak adierazi / Señalar número de días o jornadas	
AUTOFINANZAKETA / AUTOFINANCIACIÓN	
Kuotak/ cuota	
Diru-laguntzak/ subvenciones	
Beste batzuk/ Otros	
Diru sarrerak / Total de ingresos	

Udal plaza, 1
Murgia - ZUIA
01130 ARABA

945 430 005
<http://www.zuia.eus/>
zuiakoudala@ayto.araba.eus

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)**ZUIAKO UDALA**
MURGIA (ARABA)**ANEXO VI**
AYUNTAMIENTO DE ZUIA

GASTUEN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE GASTOS			
Detallar todos los gastos / Zehaztu gastu guztiak			
KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	Zenbatekoa Importe	Ehunekoa Tanto por ciento	Konputagarria Computable
A)			
B)			
C)			
D)			
E)			
F)			
G)			
H)			
I)			
J)			
K)			
L)			
M)			
PUNTOS TOTALES / GUZTIRA			

Udal plaza, 1
Murgia - ZUIA
01130 ARABA945 430 005
<http://www.zuia.eus/>
zuiakoudala@ayto.araba.eus